

476 ume ibiliko dira bihartik udaleku irekietan

■ 55 begiralek zainduko dituzte umeak, 09:00etatik 13:00etara ■ 3-11 urte bitarteko umeak dira ■ Udalekua udaletxeko euskara batzordeak antolatzen du.



Umeak jokoak egiten iazko udalekuetan. Zenbait aurpegia ondo garbituta etorriko da etxera.

ASTELEHENEAN hasiko dira Hernaniko udaleku irekiak. Dena prest dago: 476 ume, 55 begirale, 3 koordinatzaile eta arduradun bat. Hilabeteke egitaraua da. Udalekuak *Urtxintxa* taldeak bideratuko ditu eta Amagoia Etxeberria izango da arduraduna.

12 URTEKO HISTORIA

Euskara batzordeak dioenez, udalekuak 1989an sortu ziren. Artean, Hernanin ikasle askok ikasten zuten B eta A eredu-tan (euskera eta erderaz batzuk, eta erdera hutsean besteek). Eta udalekuak sortu ziren oportetean etxean euskera hitz egiteko aukerarik ez zuten umeek, hilabete batean behintzat, beste umeekin jolasean

egin eta euskeraz aritzeko aukera izateko.

Orain egoera aldatu da eta lehen baino askoz ume gehiago izaten da. Hala ere, hizkuntzak helburu garrantzitsua izaten jarraitzen du.

Hizkuntzarenaz gain, udalekuek badute beste alderdi garrantzitsu bat: ikastola ezberdinak umeak jokoetan elkarrekin nahastuan ibiltzen dira. Hilabetean elkar ezagutu eta lagun egiteko aukera ederra.

EGITARAU ZABALA

Umeek ez dute aspertzen betarik izango, *Urtxintxak* hilabete osorako ekintza aukera haundia antolatu baitu. Astelehen eta astearteetan umeak herrian bertan ibiliko dira:

tailerrak, jokoak eta abar izango dituzte entretenigarri. Asteazken eta ostegunetan inguruko herrietara buelta: Urnieta edo Astigarragako piszinara, Donostiara hondartzara, Itsas museora.... Eta ostiraletan berriz, egun berezia: ur eguna, zikin eguna, San Ferminak, eta holako ekintza *berexiak* egingo dituzte.

HENDAIAKO UMEKIN, INTERNETEAZ

Udalekuan aurren esperimendu berri bat egiteko dute. Bederatzi urteko umeak, internetez, Hendaiako udalekuko umeekin harremanetan jarriko dira. Elkar agurtu eta zita jarriko dute beste egun batean elkarrengana biltzeko. □

■ PELOTA - HERRI ARTEKOA

Hernani sorpresa ematera gaur, Soraluzeren kontra

■ Partiduak kiroldegian jokatuko dira, arratsaldeko 17:00etan hasita ■ Aretxabaleta pasa da finalera

HERNANIK lantegi zaila du gaur Soraluzeko ekipoaren kontra. Soraluzetarrak, aurreko txapela irabazteko faboritoak izateaz gain, aurreko partiduan koska haundia kendu zieten hernaniarrei. Han 2-1 irabazi ez ezik, tanteoan ere alde haundia atera zuten, batez ere kadeteetan.

SEIKOTEA, ERABAKITA

Gaur arratsaldean jokatuko duen seikoteak aldaketa bat

izango du aurrekoekiko: kadeteetan Jon Gorrotxategik jokatuko du eta jubeniletan Jon Zabalak. Seikotea, beraz: Jon Gorrotxategi-Mikel Otegi, kadeteetan; Jon Zabala-Yubero, jubeniletan; eta Erroizenea-Felix Zabala helduetan.

Irabazi edo galdu, aurreko Hernanik Herri arteko txapelketan semifinaletan jokatzen duen laugarren urtea du segidan. Bi final jokatu ditu eta iazkoan txapelkun atera. □

Udal Informatika Aretoa udaran goizetan zabalik

■ 09:00etatik 14:00etara egongo da ■ Uztailean Windows+word eta internet ikastaroak emango ditu.



Informatika zerbitzua erabiltzen.

UDAL Informatika Aretoa udaran ordutegi berria izango du. Orain artean arratsalde zegoen zabalik, 15:00etatik 22:00etara; eta uztailetik aurrera goizez egongo da. Zerbitzu hori erabiltzeko bazkide egin behar da. Hernanin enpadrone-

tua egon ezker, 5.622 pta da. Eguneroko informatika zerbitzuaz gain, Informatika Aretoa 20 orduko bi ikastaro emango ditu: *Windows 98 + Word* eta *Internet*. Aretoa Larramendi kalean dago. ☎ 943-551000.

HIZKUNTZAK

Astarbe
INGELES eta FRANTSESA

IKASTARO BERRIAK
MAILA GUZTIAK.
CAMBRIDGE- H.E.O.

Berri ematea eta izen ematea:
HELBIDE BERRIA
Montebideo kalea 1, 1^{goa} A
(EPO ikastetxe ondoan)
Tel: 943 551 201
617 237 387
20120 HERNANI

Barceló **Bidaia**

Hasi zure bidaiak Barceló Bidaia

Barceló **Bidaia**

Hernaniko bidai agentzia berria
Izpizua 13 - 20.120 HERNANI
Tel 943 550311 - Faxe 943 551140

INFORMATIKA ARETOKO IKASTAROAK

WINDOWS 98 + WORD 2000
Uztailaren 9-tik 13-ra
goizeko 9-tik 13-ra (20 ordu).

INTERNET-a
Uztailaren 16-tik 20-ra
goizeko 9-tik 13-ra (20 ordu).

Informazioa:
Larramendi 11, beheko. Tlf: 943 551000
Uztailako ordutegia: 9-tik 14-ra.

Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udaltzatutua

Europako Gizarte Fonda

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

Peugeot 406	TD	1.900.000 pza
Peugeot 405 GRI	1.9 Aire egokitua	570.000 pza
Peugeot 206	Diesela	berria
Renault Clio - 5p.	Diesela	775.000 pza
Citroen AX- 5 ate	Diesela	475.000 pza
Ford Escort - 5 ate	16 balbula - gorria	550.000 pza
Renault Express	Diesela	650.000 pza
Renault Express	Diesela	450.000 pza
Suzuki "Todo terreno"	1.2	290.000 pza

eta beste hainbat, 100.000 eta 200.000 pta artean...

Mikel Iturbe eta 'Tutu' Ezeizak irabazi dute Kronika pelota txapelketa

■ 22-17 irabazi zieten Xabier Legarreta eta Gorka Ezeizari ■ Hirugarren postua Iñaki-Angelek lortu zuten 22-18 Gaxi-Enekor irabazita.



Tutu eta Mikel txapeldunak beste saridun, antolatzaile eta sari emaleekin partidua bukatuta.

GIRO ederrean jokatu ziren atzo I go herri mailako Kronika pelota finalak. Hasiera batean Sanjoanetan ziren jokatzeoak, baina euria zela eta atzorarte atzeratu ziren. Atzo jende asko inguratu zen Tilosetara partiduak ikustera.

3-4 POSTUA

Lehenengo 3garren eta 4garren postuko partidua jokatu zen. Bertan Iñaki-Angel biko-

teak 22-18 irabazi zioten Gaxi-Enekor.

FINALA

Finala ligan lehenengo gelditu ziren bi bikoteek jokatzen zuten. Ikusmin haundia zegoen, aurrez bi bikote hauek elkarren kontra lehia gogorak izan dituztelako. Atzokoan, Tutu-Iturbe izan ziren garaile, Xabier-Gorka 22-17 mendean hartuta.

AZKEN SAILKAPENA	
1	TUTU-MIKEL
2	XABIER-GORKA
3	IÑAKI-ANGEL
4	GAXI-ENKO
5	JOXE-ZELAIA
6	ION-DABID
7	MAGI-TXILI
8	AITZOL-INMAR
9	IKER-JOSU
10	JUANJO-TANI
11	LEITZA-JUANMARI
12	ITXATXO-XAPO

■ ERRUGBIA

Klubak bazkari ederra eginda bukatu du aurtengo denboraldia

■ Maila guztietako errugbilariak, prestatzaileak, zuzendaritzako jendea, Federazioko ordezkariak... 200 bat lagun bildu ziren Plaza Berrian.



Hernaniko Errugbi Klubeko lagunak bazkaritan, atzo.

ERRUGBILARIEK bazkari ederra eginda ospatu zituzten denboraldi osoko pozak eta nekeak. 200 lagun inguru bildu ziren eta gehienak gazteak. Kirol emaitzei begiratuta, urte

gorabeheratsua izan da. Seniorrak mailari eutsi ezinda ibili dira eta gazteak denak hautsi beharrean. Orain deskantsua. Aurrerago, Kronikak balorazio sakonagoa eskainiko du. □

HORBEL
TABERNA - JATETXEA
BOKATAK KAZUELITAK PINTXOAK
LIZEAGA 4 - Tel. 943 33 33 95 - HERNANI

■ TXIRRINDULARITZA

Hamabost hernaniarretik gora 'Quebranta Huesosean'

■ Izan dira 30tik gora irten diren urteak ere.



Hiru hernaniar (atzeoak) Pirineoetako aldapa gogorretan gora.

SAN Joan bezperan ez ziren herritar guztiak Hernanin. Hamabosten bat lagun Pirineoetara joanak ziren *Quebranta Huesos* proba sonatuan parte hartzeraz. Probak 206 kilometro ditu eta tartean Somport, Mari Blanc eta Portalet portu gogo-rrak. Aurten 4.700 txirrindularik hartu dute parte, 2.500 inguru euskaldunak eta 2.500 hoietatik 1.200 inguru gipuzkoarrak.

GOGOR ENTRENATUTA

Zikloturistak dira parte hartzen duten gehienak. Hernaniarrak Goizueta bidean aritzen dira entrenatzen, joan-etorrian. Parte hartzaileetako batek esan digunez 8.000 kilo-

metro egiten ditu urtarrean hasita, proba puntuan iristeko. Proba zenbat gogor den konturatzeko datu bat: azken urteetan txirrindularitza profesionala utzitakoak omendu dituzte; Marino, Indurain eta Del-gadok ez dute proba bukatzerik lortu omenaldi egunean. Hala ere, aurten Claudio Chiapuchi omendu dute eta 12-garren sartu da. To kasta!

DENBORALDIA BUKATZEN

Zikloturistek datorren igandean izango dute azken proba Tolosan: Abraham Olano proba. Hernanin 60 bat zikloturista badira Zikuñagako Ama taldean dabilzanak. □

1.300 txirrindularitik, Iñigo Garayoa hernaniarra 10garren 'Extreme Bardenas' mendi bizikleta proban

■ Bardeetan 105 km egin zituzten.

ARGEDASEN (Nafarroa) egiten da urtero mendi bizikleta proba berezi hori. Mendi bizikleta zaleen artean oso proba ezaguna da. Aurtengoan 1.300 txirrindulari inguruk hartu dute parte. Eta Iñigo Garayoa hernaniarra 10garren postua egin du, irabazlearengatik 2 minutu eta 53 segundora.

HERNANIARRAK

Hernaniarrek badute proba hau egiteko ohitura. Edizio honetan dozena bat inguru atera dira, eta paper ona egin gainera.

Bertan izandako batek esan digunez, proba oso gogorra izan zen, 35 gradutako beroa izan bai zuten. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalaritza anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Gomez Nagusia 15 ☎ 943 554892
►Gauetz: Gomez Nagusia 15 ☎ 943 554892



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

Jatetxea



Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
LARUNBATETAN ITXITA